



Garazi GOIA
Idazlea

Txotxongiloak

Futbolzale izan naiz beti eta futboleant jokatzen ere urteak eman nituen. Hogeita bost urte pasatu dira ordutik eta emakumezkoen futboleant egin diren aurrerapausoak optimismoz begiratzeko nituen. Ingalaterran emakumezkoen futbolari eman zaion bultzada izugarria izan da, eskolarteko lehiaketetan, futbol taldeetan baita kulturalki ere. Ameriketako; Estatu Batuetako futbol ligan Abby Wambachek soldata berdintasunaren alde bultzatu zuen mugimendua gertutik jarraitzeko zortea izan dut. Oraindik urruti gaude berdintasunetik eta lan handia dago aurretik, baina bat-batean Rubiales bezalako hala-nolako pertsonaiek azaltzen dira dena kakaztera. Optimismo izpi horiek bertan behera uzten dizkigute, eta kaskarkeria eta ustel usaina ateratzen dira leku guztietatik.



Rubiales eta Vilda bezalako pertsonaiek tontotzat gauzkate. Eidan RUBIO

Vildak txalo egin zion Rubialesi, dimitituko ez zuela iragarri zuen areto hartan. Baina, agidanez, txaloak agerraldi-ko zati bati zuzenduta zeuden, edo horrelako aitzakia erge- len bat entzun diot gaur. Gela osoa txaloka ikustean berak ere txalo egin zuen; bestela, nola izango zen bera txalo egi- ten ez zuen bakarra? Zer koldarkeria da hori? Ez dakit nor zi- ren gela hartan zeudenak, baina gehiengo handi batek hi- tzaldi lotsagarri hura onetsi zuen.

Bide batez, nork idatzi zuen Rubialesen hitzaldi iraingarri hura? Rubialesek inoiz ezabatu ezingo duen kapitulu hori analizatuta, errore zerrenda hain da luzea: auto-errekonozi- mendu eskasa, erreferentzia falta, nartzisismoa, ezjakinta- suna, errespetu falta. Arrasto gorria zeharkatu zuen, behin eta berriz. Euskaraz “hala-nolakoa” edo “kaskarra” esango genuke. Gaztelaniaz edo ingelesez in- dar handiago du “mediocre” hitzak. Be- gira nolako jendaila dagoen patriarka- tu “mediocre” horretan.

Kapitulu horren ikusle guztiok zere- sanik gabe utziko gintuztela uste zuten. Rubiales eta Vilda bezalako pertso- naiek tontotzat gauzkate. Uste dute barkamen saiakera baldar horiek sine- tsiko ditugula. Beraien patriarkatuan normalizatuta dago-eta hori. Haien ja- rrera autoritario, misoginia eta ustelke- ria guztiak bezala.

Arazoa handia da. Baina pentsatu une batez, zer gertatuko zen, Rubialesek Jennifer Hermoso futbolariari musu eman izan ez balio. Rubiales Espainia- ko heroi berria izango zen. Matxismoa hezurretaraino sartuta daukan siste- mak berdin jarraituko zuen. Espainiako Futbol Federazioak Vilda eta Rubiales gorai patuko zituen. Espainiako heroi berriak izango ziren. Horrek ematen du beldurrik handiena. Nola hartuko du funtsezko arazoak konpontzeko eran- tzukizuna? Kuriositatez begiratu nuen Espainiako Futbol Federazioko zuzen- daritza batzordea nork osatzen zuten. 42 izen azaltzen ziren zerrendan. Zazpi, emakumezkoak. Hor daukazu beste datu bat. Zenbat lan dagoen egiteke. •